



<b>2025EKO TOLOSAKO INAUTERIETAKO JAIETAKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETA</b>	<b>CONCURSO PARA ELEGIR EL CARTEL DE LAS FIESTAS DEL CARNAVAL TOLOSA 2025</b>
<b>1.- Lehiaketaren xedea</b>	<b>1.- Objeto del concurso</b>
Lehiaketaren helburua da Tolosako Inauteri jaiak 2025ean iragarriko dituen publizitatea eta kartelak irudikatzeko erabiliko den kartela aukeratzea.	El objetivo del concurso es la elección del cartel que se utilizará para ilustrar la publicidad y cartelería que anunciará las Fiestas de Carnaval de Tolosa en su edición de 2025.
<b>2.- Parte-hartzaileak</b>	<b>2.- Participantes.</b>
Artista afizionatuek edo profesionalek parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan.  Lehiaketan, egile bakoitzeko, gehienez hiru lan aurkeztu ahal izango dira.	Podrán participar en este concurso aquellos/as artistas aficionados/as o profesionales que lo deseen.  En el concurso podrán presentarse hasta un máximo de tres obras por autor/a.
<b>3.- Lanen ezaugarriak eta aurkezpena</b>	<b>3.- Presentación y características de las obras</b>
Honako hau izango da kartelari dagozkion ezaugarriak  <b>Inauteriak 2025, otsailak 27- martxoak 4 / TOLOSA</b> , izango da kartel guztietan azalduko den testua.  <i>Tamaina:</i> neurri bertikalean aurkeztu beharko dira eta 50 x 70 zentimetroko proportzioa izango dute.  <i>Kolorea eta teknika:</i> aukerakoa. Kartela formatu digitalean aurkeztu behar da irudi bektoriala duen artxibo batean. Artxiboaren gutxieneko erresoluzioa 300 ppp-koa izango da eta gehienez 5 MB izango ditu hautaketaren 1. fasean. Irabazle aukeratu den hautagaiak bereizmen altueneko formatuan aurkeztu beharko dituzte beren proposamenak.	El cartel tendrá las siguientes características:  El texto que aparecerá en los carteles será Inauteriak 2025, otsailak 27-martxoak 4 / TOLOSA.  Tamaño: deberán presentarse en medida vertical y tendrán una proporción de 50 x 70 cm.  Color y técnica: libre elección. Los trabajos se deberán presentar en formato digital en un archivo de imagen vectorial. En la fase 1, la resolución mínima del archivo será de 300 ppp y una capacidad máxima de 5 MB. El ganador deberá presentar su propuesta en un formato de máxima resolución.



## 2024LESA0002

<p>Testuak: erabilitako tamainak zein tipografiak ongi irakurtzea erraztu behar dute.</p> <p>Obra horiek, ideia nahiz edukiari dagokionez, originalak izan beharko dute derrigor, eta jendurrean aurkezteko modukoak. Ezinbesteko baldintza da lanak lan originalak izatea (ez beste batzuen kopia edo imitazioa, baizik eta egilearen asmamenaren emaitza, IA adimen artifizialaren erabilera alde batera utzita) eta argitaragabeak (inoiz argitaratu edo jendurrean ezagutzera eman ez direnak). Baldintza horiek betetzen ez dituzten obrak deskalifikatu egingo dira.</p> <p>Kartelak fitxategi digital batean aurkeztu behar dira, Tolosako Udalak bere webgunean (<a href="http://www.tolosa.eus">www.tolosa.eus</a>) horretarako prestatutako aplikazioaren bitartez. Aplikazio horretan kartel bakoitzari zenbaki bat esleituko zaio eta zenbaki hori izango da epaimahairentzat kartelaren identifikatzailea, sortzailearen anonimotasuna bermatze aldera.</p> <p>Kartelaren egiletza ezin izango da publiko egin lehiaketaren prozesuaren edozein unetan, ezta sare sozialen bidez ere (instagram, facebook, twitter, You Tube, TikTok, etab.), eta hori deskalifikatzeko arrazoia izango da.</p> <p>Fitxategiaren izenean lema baino ez da azaldu behar.</p>	<p>Textos: tanto el tamaño utilizado como la tipografía deben facilitar su correcta lectura.</p> <p>Estas obras deberán ser, necesariamente, originales en cuanto a su idea y contenido, y presentables públicamente. Es requisito indispensable que las obras sean obras originales (no copia o imitación de otras, sino fruto del ingenio del autor, al margen del uso de inteligencia artificial IA) e inéditas (que nunca han sido publicadas o dadas a conocer públicamente). Las obras que no cumplan estos requisitos serán descalificadas.</p> <p>Los carteles se presentarán en formato digital a través de una aplicación que al efecto dispondrá el Ayuntamiento de Tolosa en su web (<a href="http://www.tolosa.eus">www.tolosa.eus</a>). En dicha aplicación se asignará un número a cada cartel, que será el número identificativo para el jurado.</p> <p>La autoría del cartel no podrá hacerse pública en ningún momento del proceso del concurso, ni por ningún medio, incluidas las redes sociales (instagram, facebook, twitter, You Tube, TikTok, etc.), lo cual será motivo de descalificación.</p> <p>En el nombre del fichero sólomente ha de constar el lema.</p>
<b>5.- Sariak</b>	<b>5.- Premios</b>
Lehiaketaren irabazleak 1.500 € jasoko ditu.	La persona ganadora del concurso percibirá 1.500 €.
Lehiaketaren oinarriak 2024 urtean argitaratuko badira ere, irabazlea	Aunque las bases del concurso se publicarán en 2024, el ganador será



## 2024LESA0002

<p>2025ean izendatuko da eta prestatuko den kartela ere hurrengo urteko inauteriei publizitatea egiteko izango da.</p> <p>Oinarriak aurretiazko tramitazio bidez argitaratu dira eta horrenbestez, 1.500,00 euroko saria 2025 urteko 0800.226.06.338.00 aurrekontu partidan nahikoa kreditu eta egokia egotera baldintzatuta geratzen da.</p>	<p>nombrado en 2025 y el cartel que se preparará también será para hacer publicidad a los carnavales del año siguiente.</p> <p>Las bases han sido publicadas mediante tramitación previa, por lo que el premio de 1.500,00 euros queda condicionado a la existencia de crédito suficiente y adecuado en la partida presupuestaria 0800.226.06.338.00 del año 2025.</p>
<b>6.- Aurkezteko epea</b>	<b>6.- Plazo de presentacion</b>
2024ko abenduaren 9tik 27ra.	Del 9 al 27 de diciembre.
<b>7.-Hautaketa-prozesua eta epaimahaiaren osaera</b>	<b>7.- Proceso selectivo y composición del Tribunal calificador</b>
<p>Kartel irabazlea aukeratzeko bi faseetan egingo da prozesua:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Epaimahai batek aurkeztutako lan guztietatik kartel bat aukeratu du.</li><li>• Urtarrilean kartel irabazlea nor den jakinaraziko da.</li></ul> <p>Epaimahaia Kultura, Festak eta Gaztedia Departamentuak izendatuko du, emakumeen eta gizonen ordezkaritza parekatua izango dela bermatuta.</p> <p>Epaimahaikideak ondorengoak izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Mahaiburua: Kulturako Zinegotzia.</li><li>• Bokalak: Diseinu grafikoan edo arte ederretan hiru aditu .-</li><li>• Idazkaria: Kultura Teknikaria izango da, hitza bai, baina botorik gabe.</li></ul>	<p>Se realizarán 2 fases de cara a la elección del cartel ganador:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Un jurado seleccionará un cartel de todos los trabajos presentados.</li><li>• En genero se dará a conocer el cartel ganador/a.</li></ul> <p>Será nombrado por el Departamento de Cultura, Fiestas y Juventud, y se garantizará que su composición cumpla con los criterios de igualdad de sexos.</p> <p>El tribunal está compuesto de la siguiente forma:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Presidente: La Concejala Delegada de Cultura.</li><li>• Vocales: Tres especialistas en Diseño Gráfico o Bellas Artes.</li><li>• Secretaria: Tecnica de cultura, con voz pero sin voto</li></ul>



## 2024LESA0002

<p>Epaimahaiko kideek ezin izango dute lehiaketan parte hartu, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute, abstentzioaren eta errefusatzearen arrazoiei dagokienez.</p> <p>Baloraziorako ezarritako irizpideak honako hauek izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Aurkeztutako lanaren kalitatea.</li><li>• Esanahia: Inauterietako jaietako kartela aurkezteko eta irudikatze gaitasuna.</li><li>• Sormena proposamenaren garapenean.</li></ul>	<p>Los/as miembros/as del jurado no podrán tomar parte en el concurso y deberán observar lo dispuesto en los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, en lo que a las causas de abstención y recusación se refiere.</p> <p>Los criterios establecidos para la valoración serán los siguientes:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Calidad del trabajo presentado.</li><li>• Significado: Capacidad de presentación y representación del cartel de las fiestas de carnaval.</li><li>• Creatividad en el desarrollo de la propuesta.</li></ul>
<b>8.- Epaimahaiaren betebeharrak</b>	<b>8.- Obligaciones del jurado/a.</b>
<p>Epaimahaiak, hautaketa-prozesuan, edozein unetan deskalifikatu ahal izango ditu inguruabar hauetakoren bat duten lan guztiak:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zalantzazko egiletza dutenak</li><li>• Pertsonen duintasunaren aurka egiten dutenak.</li><li>• Beste obra batzuen plagioa direla uste dutenak.</li></ul>	<p>El Tribunal, en el proceso selectivo, podrá descalificar en cualquier momento todos los trabajos en los que concurra alguna de las siguientes circunstancias:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• De dudosa autoría</li><li>• Atenten contra la dignidad de las personas.</li><li>• Quienes consideren que se trata de un plagio de otras obras.</li></ul>
<b>9.- Obraren baldintzak</b>	<b>9.- Requisitos de las obras</b>
<p>Generoen irudikapenean erabilitako irudiek oreka bilatuko dute, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeraren arloan diferentzien tratamendu gutxiesgarria ekidinez. Ezta alkoholaren edo drogen kontsumoarekin zerikusirik duen mezurik, irudirik edo bestelako elementurik ere.</p>	<p>Las imágenes utilizadas tenderán al equilibrio en la representación de los géneros, sin reforzar los roles y estereotipos tradicionales, evitando un tratamiento peyorativo de las diferencias de sexo, raza, edad, cultura u opción sexual. Tampoco deberán contener mensajes, imágenes o señal alguna con el consumo de alcohol o drogas.</p>



## 2024LESA0002

<p>Saritutako kartela eta beronen era guztietako erreprodukzio eskubideak Tolosako Udalaren jabetzapean geratuko dira. Horiek egoki deritzon publizitate lanetan ere erabili ahal izango ditu. Kasu horietan, autoreek ez dute inolako erreklamaziorik egiteko eskubiderik, ez eta jadanik eskuratutako sariaren zenbatekoaz gain beste diru kopururik jasotzeko ere. Gainera, saritutako lanak eduki ditzakeen jabetza intelektualaren gaineko eskubide guztiak Tolosako Udalari emandakotzat joko dira, inolako kontraprestaziorik gabe.</p>	<p>Serán propiedad del Ayuntamiento de Tolosa el trabajo ganador/a así como todos sus derechos de reproducción. Podrá ser usado, asimismo, en los trabajos publicitarios que se consideren oportunos. En este caso, la persona autora no tendrá derecho a reclamación alguna ni a una compensación suplementaria al premio recibido. Además, se considerarán cedidos al Ayuntamiento de Tolosa todos los derechos de propiedad intelectual de la obra, sin contraprestación alguna.</p>
<p><b>10.- Ezingo dira onuradunak izan</b></p>	<p><b>10.- No podrán ser beneficiarias/os de estos premios:</b></p>
<p>Lege honetako 2. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikulua (2003ko azaroaren 18ko BOE).</p> <p>Tolosako Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.</p> <p>Saria jaso hala izateko irabazlea Gizarte Segurantzako betebeharretan eta zerga-betebeharretan egunean egon beharko da</p> <p>Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22.artikuluan jaso dagoen moduan, onuradunak aipatutako ziurtagiriak</p>	<p>Las personas o entidades en quienes concurra algunas de las circunstancias previstas en el art. 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (BOE de 18 de noviembre de 2003).</p> <p>Los/as particulares o entidades que se hallen incursos en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento de Tolosa, ni aquellas personas que no se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento hasta que dichas deudas sean efectivamente satisfechas y saldadas o cumplidas, salvo que las mismas se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.</p> <p>El beneficiario del premio el ganador deberá estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con la Seguridad Social y tributarias. Tal y como se recoge en el artículo 22 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por</p>



<p>aurkeztu beharrean baimena eman diezaioke Tolosako Udalari aipatutako ziurtagiriak egunean dituen ala ez egiazta dezan. Era berean onuraduna ez badago aipatutako ziurtagiriak aurkeztera behartuta, erantzukizunpeko adierazpen bidez egiazta dezake betebeharrak egunean dituela.</p>	<p>el que se aprueba el Reglamento de la Ley General, el beneficiario podrá sustituir la presentación de los citados certificados por la autorización al Ayuntamiento de Tolosa para que compruebe si se encuentra al corriente en la realización de dichos certificados. Así mismo, el beneficiario no está obligado a presentar los citados certificados, podrá acreditar el cumplimiento de sus obligaciones mediante declaración responsable.</p>
<p><b>11.- Informazio gehiago</b></p>	<p><b>11.- Más información</b></p>
<p>Lehiaketari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero Kultura, Festak eta Gazteria Sailarekin jarri beharko dira harremanetan interesatuak.</p> <p>Honako ordutegi honetan: astelehenetik ostiralera, goizeko 10:00etatik 13:00etara.</p> <p>Horretarako telefonoa 943 67 03 83 da eta posta elektronikoa <a href="mailto:festak@tolosa.eus">festak@tolosa.eus</a></p>	<p>Para más información sobre el concurso los/las interesados/as deberán ponerse en contacto con el Departamento de Cultura, Fiestas y Juventud.</p> <p>Horario de lunes a viernes de 10:00 a 13:00 horas.</p> <p>Para ello el teléfono es 943 67 03 83 y el correo electrónico <a href="mailto:festak@tolosa.eus">festak@tolosa.eus</a></p>
<p><b>12.- Aplikatu beharreko arautegia</b></p>	<p><b>12.- Normativa aplicable</b></p>
<p>Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. Oinarri horien eta horiek betearazteko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka, nahi izanez gero, honako errekurtsio hauek jarri ahal izango dira:</p> <p>Erabakia aurkaratu aurretik, interesdunak aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio Alkatetzari, hilabeteko epean, erabakia hartu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.</p>	<p>La participación en el concurso supone la aceptación de estas bases. Contra estas bases y las resoluciones administrativas que se adopten en ejecución de las mismas podrán interponerse, potestativamente, los siguientes recursos:</p> <p>Con carácter previo a la impugnación del acuerdo, el interesado podrá interponer recurso potestativo de reposición ante la Alcaldía en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la adopción del correspondiente acuerdo. Todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento</p>





<p>Bestela, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du bi hilabeteko epean, erabakia hartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, berraztertze-errekurtsoaren ordezkari edo horri emandako erantzunaren aurka. Errekurtso hori Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian aurkeztu beharko da.</p> <p>Era berean, berriazko ebazpenik izan ezean, bai prozedurari amaiera emateko, bai berraztertze-errekurtsoari erantzuteko, interesdunak edozein unetan jarri ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Errekurtso hori Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian aurkeztu beharko da.</p>	<p>Administrativo Común de las Administraciones Públicas.</p> <p>En caso contrario, el interesado podrá interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la adopción del correspondiente acuerdo, en lugar de recurso de reposición o contra la contestación al mismo. Dicho recurso deberá presentarse ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.</p> <p>Asimismo, en defecto de resolución expresa, tanto para poner fin al procedimiento como para dar respuesta al recurso de reposición, el interesado podrá interponer, en cualquier momento, recurso contencioso-administrativo. Dicho recurso deberá presentarse ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.</p>
<p><b>13.- Datuen babesa</b></p>	<p><b>13.- Base de datos</b></p>
<p>Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa kontuan izanik araberatratatuko dira.</p> <p>Datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa interesdunaren berriazko baimenean eta lehiaketaren oinarri arautzaileen onarpenean oinarritzen da (DBEOaren 6.1.a). Halaber, adostasuna kendu ahal izango da, aldeztu aurretik egindako tratamenduen zilegitasunari eragin gabe.</p> <p>Parte-hartzaileek beren informazio pertsonalaren egiazkotasuna, zehaztasuna, indarraldia eta benetakotasuna bermatu eta erantzuten dute, eta 3/2018 Lege Organikoak eskatzen duen berriazko baimena lortu</p>	<p>Los datos personales serán tratados teniendo en cuenta lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.</p> <p>La legitimación para el tratamiento de los datos personales está basada en el consentimiento expreso de la persona interesada y en la aceptación de las bases reguladoras del concurso (art.6.1.a. RGPD). Asimismo, el consentimiento podrá ser retirado sin que ello afecte a la licitud de los tratamientos efectuados previamente.</p> <p>Las personas participantes garantizan y responden de la veracidad, exactitud, vigencia y autenticidad de su información personal y de haber obtenido el consentimiento expreso exigido por la Ley</p>



## 2024LESA0002

<p>izana, aurkeztutako obren irudietan agertzen diren pertsonen dagokienez.</p> <p>Halaber, parte-hartzaileek bermatzen dute 1/1982 Lege Organikoaren, maiatzaren 5koa, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzkoa, eskakizunak betetzen dituztela, eta beren obretan hirugarrenen irudia erabiltzeko legezko baimena eta/edo gaikuntza dutela.</p> <p>Datuak lehiaketa kudeatzeko beharrezkoak diren bitartean gordeko dira, eta, amaitu ondoren, legeek edo nahitaez bete beharreko arauak ezarritako betebeharrak eta erantzukizunak betetzeko legez ezarritako epeetan, edo agintaritzaren eskudunak, zuzenbidearen arabera, hala eskatzen duenean.</p> <p>Tratatzen ditugun datuak beharrezkoak dira lehiaketa kudeatzeko, lehiakideekin harremanetan jartzeko eta saria emateko.</p> <p>Ez da erabaki automatizaturik hartuko datuetan oinarrituta, eta ez dira erabiliko pertsonaren profila egiteko.</p> <p>Datu pertsonalak ez dira hirugarrenei komunikatuko, ezta hirugarren herrialdeei edo nazioarteko erakundeei transferituko ere.</p>	<p>Orgánica 3/2018, de las personas cuya imagen aparece en la obra presentada.</p> <p>Asimismo, las personas participantes garantizan que cumplen con las exigencias de la Ley Orgánica 1/1982, de 5 de mayo, sobre protección civil del derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen, y que cuentan con la oportuna autorización y/o habilitación legal para hacer uso en sus obras de la imagen de terceras personas.</p> <p>Los datos serán conservados mientras sean necesarios para la gestión del concurso y, una vez finalizado, durante los plazos legalmente establecidos para dar cumplimiento a las obligaciones y responsabilidades impuestas por las leyes o normas de obligado cumplimiento, o cuando fuera requerida para ello por mandato de autoridad competente con arreglo a Derecho.</p> <p>Los datos recabados son necesarios para la gestión del concurso, para contactar con las personas concursantes y para entregarles el premio.</p> <p>No se tomarán decisiones automatizadas en base a datos ni se utilizarán para elaborar el perfil de la persona.</p> <p>Los datos personales no serán comunicados a terceros ni transferidos a terceros países u organizaciones internacionales.</p>
---	--